



Gurean

berdintasuna



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Saileko Berdintasunerako administrazio-unitatea
8. zbk. 2020 Martxo



Ikastetxeen diseinua genero ikuspegitik



ESPAZIOAK HEZTEAZ GAIN MOLDATU EGITEN GAITU: NOLA AURRE EGIN ESKOLETAKO JOLASTOKIEN ERALDAKETARI

Espazioa ez da neutroa. Jarduerak eta pertsonen arteko harremanak balditzatzen ditu. Ikastetxeetako jolastokiek neska eta mutilen arteko harreman ugari sortzen den mikroklima bat osatzen dute. Jolasaren bidez berez sortzen diren heziketa prozesuak ematen dira: entzutea, adostea, denon artean helburuak finkatzea, arauak onartzea, gatazkak konpontzea, irudimena garatzea, eta abar. Rolak eta botere harremanak erreproduzitu egiten diren espazioa da. Berdintasuna, menderatzea eta men egitea bezelako balio eta jarverak hauteman daitezke jolasgumeetan eta hezkuntzatik landu daitezke.

Eskoletako kurrikulumak eta espazioak sexuaren arabera banatuta zeuden frankismoaren garaian, eta sasoi hartatik ikastetxeetako jolastokiak ez dira ia ezer aldatu. “Guía de diseño y Entornos Escolares” gidaren arabera, jolastokiak espazio sinplifikatu eta homogeenak dira gehienetan; itzal, landaretza eta erlieberik gabekoak, eta jolaserako hornitutako gune bakarra kirol lehiakorrek egiteko izaten da. Hori izan da ikastetxeetako jolastokien erreatitatea hamarkada askotan zehar. “Frankismoaren “ideologo” edo “teorikoen” ustez, Heziketa Fisikoak ahalmen handia zuen printzipio batzuen igorpen ideologikoa egiteko, hau da, esanekotasuna, hierarkia, diziplina, lehiakortasuna, eta abar, eta eskoletako jolastokiak ikasgai horren beharren arabera antolatu ziren. “Estrategia didaktiko-pedagogikoko horietan oinarritutako eskolako jolastoki eredu hori naturalizat jo dugu, eta eredu berberarekin jarraitu dugu orain arte” hausnartu du, hainbat jolastokiren eraldaketa dinamizatu dituen Zuriñe Burgoak arkitektoak.

“Eskola patio eredu horren ondorioz, genero eta gaitasunen araberrako bazterketa ematen da. Gizarte harremanetarako eta egituratu gabeko jardura fisikorako pizgarria kentzen da. Diseinu horrek, edo hobe esanda, diseinu gabezia horrek, ikasleen garapenean eta osasunean eragin

kaltagarriak ditu eta, sarritan, elkarbizitza arazoak sortzen ditu. Hala ere, giza beharri-zanak kontuan hartuko dituzten elkarbizitzarako espazioak eraikiz arazo hauei erantzun egokia eman ahal zaie” adierazten du arestian aipatutako gidak

Ordu asko hartzen dituen ikasgaia.

Eskoletako jolastokiak laburki behatzen baditugu, sarritan errepikatzen den eszena bat ikusiko dugu: mutilek erdigunea betetzen dute, eta normalean futboleko jolasteko erabiltzen dute, eta neskek, eta baloia gustoko ez dutenak, bigarren planoan egoten dira. “Kirol-pistek patioetako azaleraren %70a hartzen duten bitartean, ikasleen %30ak baino ez ditu erabiltzen, eta horrek beste ikasleak bigarren mailako lekua betetzera behartzen ditu” adierazi du Burgoak. “Futbola sistemaren isla baino ez da, ez da arazoaren jatorria, baina pisu handia dauka. Hain sustraituta dagoenez, egoera aldatzea oso zaila da. Pista betetzen dutenek ez dute uzten beste jolas batzuetarako erabiltzea espazio hori, eta pistaren erdigunetik kanpo geratzen dira ikasle asko: neska gehienak, zenbait mutil eta trans eta binario ez diren ikasleak. Futboleko jokatzeko duten nesken ehuneko txikiaren barruan gaitasun atletikorik hoberenak dituzten neskek dauden bitartean, mutilek haien gaitasunak nolakoak direla ere, guztiak onartuak izaten dira. Neskek erdigunean sartzeko borrokatu behar dute, baina bertan egotea ez da nahikoa, ez dituzte inoiz berdintzat jotzen eta gutxiagotan pasatzen diete baloia. Laburbilduz, neskek bigarren mailakoak dira bertan eta denborarekin, tratu txar horiek pistatik eta kirol jardueretatik urruntzen dituzte.

Gaur egun jolastokien diseinua eztabaidarako gaia bihurtu da ikastetxe askotan. Ikasleek 525 ordu ematen dituzte urtero jolastokietan, eskola-orduetatik kanpo egiten den erabilera kontuan hartu gabe, “Los patios de las escuelas: espacios de oportunidades educativas” txostenean adierazten den bezala. Ordu kopuru hori kontuan

hartzen badugu, argi dago garrantzitsua dela jolastokietan ikasten denari buruzko hausnarketa egitea.

Eraldatze ereduak: Errekabarri

Euskal Autonomi Erkidegoan ikastetxeetako jolastokiak Espainiako legediak arautzen ditu. Horien arabera, “lehen eta derrigorrezko bigarren hezkuntza eta/edo batxilergoa irakasten duten ikastetxeek partzialki estalita egongo den jolasaldirako patio bat izan beharko dute, eremu hori kirol anitzeko pista bezala erabiltzeko modukoa izango da eta bere azalera eskola lekuen kopuruarekiko egokia, inoiz ez 900 metro karratu baino txikiagokoa”

Hortik abiatuta, Errekabarri ikastetxean amesten hasi ziren jolastoki berri batekin. Salburuan ikasleen eskaera kopurua betetzeko bigarren ikastetxe baten beharra zegoen, eta hortik sortu zen Errekabarriko proiektua.

Ikastetxearen eraikuntza egiteko lehiaketa irabazi zuen proiektuaren diseinuak honako hau jaso zuen: bi futbol zelai handi eta hirugarren bat estalita, dena asfaltatuta eta haurrentzako heziketarako gune bat. “Gure ikastetxearen proiektu pedagogikoaren oinarriak dira euskara, hezkidetzak, inklusioa, aniztasuna eta ingurugiroa, eta diseinuan horrelako hezkuntza batekin bat ez zetorren zerbait ikusi genuen” adierazi dute Errekabarri Eguzkia Ikasleen Guraso Elkartearen “Gure Jolastokia Amesten” lan taldeko kideek.

2018ko maiatzean sentsibilizazio egun bat antolatu zuten, amesten zuten jolastokiaren diseinua lantzeko, hau da “jolas librea errazteko modukoa eta ingurugiroa eta feminismoaren ikuspuntutik diseinatutako jolastoki bat”. Horretarako, Heike Freire psikologoa eta pedagogoa laguntza izan zuten, eta Freirek “Jolastoki biziak, natura eskolan sartzeko bidea” hitzaldia eman zuen. Horretaz gain, Amaia Albeniz eta Zuriñe Burgoa arkitektoek “Eskolako patioa,

AMPLIANDO

berdintasuna hazi eta hezi” hitzaldia eman zuten. Bukatzeko, Carme Cols eta Pitu Fernandezek, “Jolastoki berria diseinatzeko prozesua, komunitatea sortzeko giltzarri” hitzaldia eman zuten. eskoletako jolastokien eraldaketa prozesuen inguruan haiek urteetan izandako esperientzia azaltzeko Hitzaldi guztiak interneten daude eskuragarri.

Hurrengo urratsa jolastokia diseinatzeko izan zen. Horretarako, prozesu parte-hartzailea zabaldu zen, eta lan horretan hezkuntza komunitate osoak hartu zuen parte: ikasleek, irakasleek, familiek, jantokiko langileek eta eskolazainek. “Prozesua bi ekintza motetan oinarritu zen: alde batetik, familien prestakuntzarako eta parte-hartzearako saio batzuk egin ziren eta, bestalderik, irakasleak prestatzeko eta beharrezkoak zituzten baliabideak eskaintzeko saioak. Gainera, ikasleekin egin ziren ekintzetan ikasleek amestutako jolastokia irudikatzen zuten marrazki batzuk egin zituzten, eta marrazkiekin auzoko Gizarte Etxean erakusketa bat egin zen” komentatu dute lan taldeak. Prozesua amaitu zenean, “atera ziren ondorio guztiak azken txosten batean bildu ziren eta horiekien gure jolastokia diseinatu zen” azaldu dute.

Hiru urte eman dituzte jolastoki berria sortzeko lanean. “Eraldatze sakoneko prozesuak luzeak izaten dira beti, inoiz ez



direla bukatzen esan genezake. Horregatik garrantzitsua da epe labur, ertain eta luzeko helburuak desberdintzea, jarraipena egitea eta prozesuan egokitzapenak egiteko aukera emango duten aldi- behingo balorazioak egitea. Kontuan hartu behar dugu, hasierako etapa batean gaudela eta kontzientzia hartu eta hezkuntza komunitate osoa sentsibilizatu behar dugula. Formakuntza feministarekin oinarri on bat jarri behar dugu eta orain arteko ereduari lotutako arazoak azaleratuko dituen eta gure hausnarketan lagunduko duen diagnostiko on bat egin. Eta aldaketa baterantz

aurrera egiteko aukera emango digun imaginario kolektiboa sortzea oso garrantzitsua da.” bukatu du Burgoak.

Prozesu horiei aurre egiteko, eremu, material eta hornikuntza desberdinak azaltzen dituzten gidak daude. Gida horien adibide bat Eusko Jaurlaritzak argitaratutako “Eskoletako jolastokiak eraldatzeko proiektu parte-hartzaileak egiteko gida” da.

Harremanetan jartzeko:

- Zuriñe Burgoa Comunió. Ikastetxetako jolastokien eraldaketa proiektuak dinamizatzen dituen arkitektoa eta feminista.
 - “Eskoletako jolastokiak eraldatzeko proiektu parte-hartzaileak egiteko gida”.
- Lan hau eskoletako jolastokiak eraldatzeko proiektuak laguntzeko Eusko Jaurlaritzak Ikasleen Guraso Elkarte eta Hezkuntza Kooperatibeei luzatutako gida bat da.

Interesgarria / De Interés

GIDA



Diru-laguntza eta kontratu publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko gida

Emakunde “Kontratu publikoetan, diru-laguntza publikoetan, hitzarmenetan eta gizarte-itunetan genero-ikuspegia txertatzeko gida” argitaratu du. Bertan, kontratazio publikoan genero-ikuspegia zeharka txertatzeko beharri erantzuten dio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak adierazitakoari jarraikiz.

IKUSI

ARTIKULUA



Maskulinitateak eraldatu, irauli ala baztertu?

Jokin Azpiazu Carballok hain bogan dagoen maskulinitate berrien diskurtsoak eragiten dizkion kezka eta kontraesanak azaltzen ditu: besteak beste, gehiegizko protagonismoa, teoria feministekiko urruntzea, heterozentrismoa, binarismoa edo gizon izatearen abantalei uko egiteko erresistentziak

IKUSI

IKERKETA



Estudio

“Análisis de los fenómenos que contribuyen a perpetuar, o modificar, la discriminación de las mujeres en los campos de las matemáticas y la física” becado por Emakunde que constata la persistencia de desigualdades de género en los campos de la Matemática y la Física.

IKUSI

KATERIK GABE KATEAN

Ezinbesteko katebegia gara aurrera egiten jarraitzeko



KATERIK GABE, KATEAN: berdintasunaren katea eta emakumeen ahalduntzea indartzen jarraitzeko deia

Martxoaren 8ko kanpainak berdintasunarekin eta emakumeen eskubideekin lotutako zenbait urteurren ekarri ditu gogora, hala nola, Beijingo Adierazpen eta Ekintza Plataformaen 25. urteurrena edo Berdintasunerako Euskal Legea onartu zeneko 15. urteurrena. Urteurren horiek gogoratuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeen eskubideen aldeko lana atzetik datorren katea dela azpimarratu nahi du kanpainak. Era berean, iraganean eskubideak lortzen eta berdintasunaren aldeko urratsak ematen joan diren emakume horiei guztiei omenaldi bat egiteko modu bat da, eta belaunaldi berriei dei bat egiteko, kateari jarraipena emateko eta emakumeen ahalduntzea indartzen jarraitzeko.

Kanpainaren leloa hau da: KATERIK GABE, KATEAN. Eta emakumeen batasuna adierazten du euren eskubideen borrokan, eta baita berdintasunaren aldeko lanaren belaunaldien arteko transmisioaren beharra eta emakumeen ahalduntzea bultzatzen jarraitzeko premia. Kanpaina belaunaldien arteko topagune bihurtu nahi da, emakumeen eskubideen aldeko balioak transmititzeko leku bat: hamarkadetan emakumeen eskubideen alde lan egin duten pertsonen eta gazteen arteko topaketa irudikatu nahi du, eta, transmisio horren beharra azpimarratu, gizarteak aurrera egiten jarraitzeko eta berdintasun-espazioak irabazten jarraitzeko.



Un estudio analiza la transmisión del sexismo y el machismo en el ámbito digital entre adolescentes

Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer ha publicado el estudio ["El iceberg digital Machista: Análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la adolescencia en la CAE"](#), realizado por Estíbaliz Linares Bahillo, un estudio que resultó ganador del VI Certamen de Publicaciones de trabajos de investigación que convoca el Instituto con el objeto de apoyar la difusión de investigaciones que favorezcan la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

El estudio indaga sobre cómo interfieren las desigualdades de género de mujeres y hombres en la interacción digital de las y los jóvenes de la CAE. A través de la ex-

ploración documental y del diálogo con las y los adolescentes nacidos en la era digital, se constata la transmisión de las desigualdades sociales de género al ámbito digital, consolidándose así, entre otros, las brechas digitales de género en las habilidades y uso de las tecnologías, la hipersexualización e hipererotización de los cuerpos de las mujeres en la red, la dominación masculina digital y las ciberviolencias como el ciberacoso sexual y/o sexista. Aunque, al mismo tiempo, se detectan fisuras y oportunidades para el cambio, sobre todo, de la mano del (ciber) feminismo, la pedagogía coeducativa y la alfabetización digital crítica.

BA AL ZENEKIEN?

Hezkuntza Sailak 2019 urtean jarri zuen abian [HEZKUNTZA AZPIEGITUREN PLANA 2019-2023](#). Bere ardatz estrategikoetako bat "Genero-ikuspuntua eskola-eremuen diseinuan" da.

Honen arabera, hezkuntza-komunitateak adostasun zabalez ikusten du generoa erabakigarria dela eskola-eremuen diseinuan eta erabilpenean. Azpimarratzeko modukoa da ikastetxeetan dagoen desoreka, batetik futbol ekipamenduei eta bestetik eremu natural, lorategi edo harreman eta jolaserako beste eremu batzuei esleitzen zaizkien bitarteko eta baliabideen artean.

Beste alde batetik, ezinbestekoa da puntu beltzak identifikatu eta saihestea, neska eta emakumeei segurtasun-falta senti erazten dieten eremuak (aldagelak, komunak...), hain zuzen. Zentzu honetan, fokua jarri beharra dago eskolaren antolamendu fisikoan, neskek eta emakumeek arriskurik soma ez dezaten, eta denek, gizon zein emakume, berdintasunez joka dezaten eremu publikoan erabileran.

ZURIÑE BURGOA COMUNIÓN

ARKITEKTOA, FEMINISTA ETA BERDINTA-SUN TEKNIKARIA



Zuriñe Burgoa Comunion arkitektoa eta feminista da. 2010ean arkitektura ikuspegi feministatik lantzen aintzindaria izan zen Hiria Kolektiboarekin elkarlanean hasi zen. Elkarte horretatik Duna taldea sortu zen eta Zuriñe bertan 2018ra arte aritu zen. Duna taldean lurralde eta hiri plangintza proiektuak burutzeaz gain, eremu publikoen diseinua eta eskoletako jolastokien eraldaketa prozesuak landu zituen, eta horietan herri-tarren partehartzea eta ikuspegi teknikoa uztartu zituen. Anoe-tako Herri Ikastola, Errekabarrri eta San Prudentzio ikastetxeetako jolastokien eraldaketa prozesuak dinamizatu ditu, eta gaur egun eskola patioen eraldatze lan horietaz gain beste mota bateko arkitektura lanak egiten ditu.

Eskolako jolastokiak sistema patriarkalaren balioak islatzen dituela esan genezake?

Jolastokiak gizarte arauen isla dira. Bertan arauak antzeratu, ikasi eta erreproduzitzen ditugu. Eskoletako jolastokien antolaketa ere androzentrikoa du eta futbola bezalako jarduerak bultzatzeaz gain, pertsona batzuk lagundu eta beste batzuk baztertzen ditu. Jasotzen dugun genero-sozializazioaren ondorioz jolastokian leku bat edo bestea hartzen dugu eta, horrek, gure gaitasunen garapena sustatu edo mugatzen du.

Nola sortu zen jolastokien eraldaketa prozesua egiteko metodologia garatzeko ideia?

2012an hezkidetzeta proiektuetan espazioaren antolaketa duen garrantziari buruzko ikastaro bat ematea proposatu zizun Urtxintxa Eskolak. Horren ostean sortu zen ideia, hotik abiatuta ikertzeari ekin genion eta ikastetxeei luzatzeko proposamenak garatu genituen. Prozesu luze horretatik hainbat pertsona pasatu dira, haien artean arkitektura, pedagogia eta psikologiako profesionalak.

Neska ala mutila izan, desberdin hautesmaten da eskolako jolastokia?

Ikasleek eskolako jolastokiaz dituzten bizipenak genero-sozializazioarekin zuzenean lotuta daude. Eremu hauen eraketa androzentrikoa eta genero-sozializazioa dela eta, mutilek erdigunea hartu ohi dute eta bertan jarduera lehiakor, inbaditzailea eta erasokorra den futbola da jaun eta jabe. Ertzetan eta bazterretan ordea, neskak eta maskulinitate hegemonikoarekin identifikatzen ez diren pertsonak egoten dira sarritan. Argi dago zenbait neska erdiko jolasgunera sartzen direla ere, baina betiere zailtasun handiz egiten dute hori. Mutilek haien gaitasunak nolakoak direla ere erdigunea betetzen dute. Baina neskek eremuan sartzeko borrokatu behar dute eta hala ere bertan egotea ez da nahikoa, ez dituzte inoiz berdintzat jotzen eta gutxiagotan pasatzen diete baloia.

Neskek ikastetxeetako patioetan sexu-erasoren bat jasan dezaketela oharteman al duzu?

Lan egin nuen patio batean oso neska talde handia ikusi nuen leku baztertu eta txiki batean. Beraiengana hurbildu eta galdetu nien ea zergatik gustatzen zitzairen bertan jolastea. Azalpen zehaztugabeak eman zituzten. Ondoren galdetu nien ea ezin zuten gauza bera egin erdialdean zegoen eta gutxi erabiltzen zen saskibaloiko kantuan. Haien erantzuna argia izan zen: ezin zuten hori egin mutilek ipurdia ikutzen zitelako. Dirudenez, mutilek neskak erasotzen zituzten sinbolikoki haiena zen erdigunea hartzen saiatzen zirenean. Horrek ez du esan nahi erdigunea denik mota horretako erasoak ematen diren leku bakarra, ezta bazterreko guneak seguruagoak direnik ere. Baina erakusten digu erasoek espazioa bizitzeko era balditzatzen dutela eta gure mugimendu askatasuna eta garapena mugatzen dutela.

Zeintzuk dira diseinua kontuan hartuta genero ezberdintasuna bultzatu dezaketen ikastetxeetako beste lekuak?

Generoaren binarizazioa indartzen duten tokien adibide onak komunak eta aldagelak dira. Garrantzia hartzen ari den gai

horri ekin beharko genioke. Leku horiek binarioak ez diren identitate guztiak baztertzen dituzte. Beharrezkoa da pertsona guztiak kontutan hartuko dituzten eta segurtasuna bermatuko duten konponbideak bilatzea eta inklusi-boak izatea.

Eskoletako jolastokiak eraldatzeko prozesuaren garapena erretza izan da?

Sendatzeko ahalmen handia dauka eskolan jasandako bidegabekeriei buruzko kontzientzia hartu eta eraldaketa estrategiak abian jartzeak. Prozesu sendagarria da guztiz. Luzea izan da eta ez da beti gaur egun bezain ondo onartua izan. Gehienek jolastokien eraldaketa beharrezkoa zela uste zuten, baina ez zuten lehen-tasuntzat hartzen. Gaur Eusko Jaurlaritzaren sail batzuen interesa, eta eman diren esperientziak eta komunikabideen ohiartzuna dela eta lan esparru horretan interesa duten ikastetxeen kopurua gora egin du. Hori dela eta, asko poztzen naiz garai hartan amore eman ez nuelako.

Zure ustez nola lagundu dezakete erakundeek eskoletako jolasguneen eraldaketan?

Erakundeetatik nohizean behin laguntzak jasotzen dira. Horiek hausnarketa eta diagnostiko prozesuen kostua ozta-ozta ordaintzeko modukoak dira. Laguntza ekonomikoa hobetzeaz gain, ikastetxe guztien egoeraren diagnostikoa egin beharko litzateke, inbentario moduko bat. Horretaz gain, egin diren edo egiten ari diren eskoletako jolastokien eraldaketen erregistro bat egitea ere oso interesgarria izango litzateke, gerora egingo diren prozesuetan balorazioak eta xehetasunak erabili ahal izateko.